


**BILDU** –ren mozioa: Alberto Plazaolari Parot doktrina aplikatzearen aurkako mozioa

OÑATIKO UDALA	
Erregistro Data	
2017 MAI 29	
SATURNA	OSTERA
1219	



Esperantzako aro berria ireki da Euskal Herria, egiazko konponbide eta bake agertoki bat eraikitzeko ahalegin ezberdinak biderkatu dira. Bide horretan, Giza Eskubideen guztien errespetua ardatz nagusi eta sahiestezina da euskal jendartearen gehiengo erraldoi batentzat.

Zoritxarrez, egun badira oraindik kezka, samina eta sufrimendua eragiten duten egoerak. Horietako bat, euskal presoek pairatzen duten egoera da. Oraindik orain, errepresio eta erabilpen irizpideen arabera ezarritako espetxe politika da indarrean dagoena, eta horren adierazle dira euskal jendartearen gehiengo zabalak irmoki arbudiatu duen salbuespen neurrien aplikazioa. Hala nola, sakabanaketa politika, gaixotasun larriak dituzte presoak espetxean mantentzea eta bizi osorako espetxe zigorraren aplikazioa.

Alberto Plazaola Anduaga Oñatiar Preso Politikoak 21 urte daramatza espetxean, hau nahikoa ez balitz, heldu den Maiatzean, 197/2006 doktrinarekin, bere egoera muturrekoa izatera pasa da.

1990eko Azaroaren 17an atxilotu zuten Frantzian. 1996ko Martxora arte Frantziako hainbat espetxetan eduki zuten bahituta. Extradizioaren ostean hamaika kartzelatik pasatu da eta orain Teixeira Curtisen dago, Galizian etxetik 650 km-tara.

Honenbestez, Azaroan 22 urte beteko dira askatasuna lapurtu ziotenetik. Legearen arabera, 2016an libre behar luke, baina gaizki deituriko "Parot" doktrina famatua aplikatuta, 2026rarte luzatu diote espetxealdia.

Bizi osorako espetxe zigorra onartezina da giza eskubideen ikuspegitik. Askatasunerako oinarrizko eskubidea urratzeaz gain, ondorio fisiko eta psikologiko larri eta konponezinak eragiten ditu pertsonarengan.

Horrenbestez, udal honek honakoa adierazi nahi du:

- Frantziar eta Espainiar estatuak darabilten espetxe politika egokitzea, hasi den aro berrian gatazka konpontzeko bidean modu positiboan eragiteko.
- Zigorra beteta duten presoak aske geratzea eskatzen dugu, 197/2006 doktrinaren aplikazioa neurri ankerra eta bidegabea iruditzen zaigu. Norabide honetan, Alberto Plazaola Anduaga berehala aske usteko eskaera luzatzen diogu gobernu espainolari.
- Zinegotziok Alberto bisitatzen jarraitzeko konpromezua hartzen dugu.
- Zinegotziok Albertori gutunak idazteko konpromezua hartzen dugu.
- Albertoren espetxeko zuzendariari eta Instituciones penitenciarias-i bere askatasuna eskatuz gutun bat helarazteko konpromezua hartzen du.
- Erabaki honen berri herritarrei emateko konpromisoa hartzen dugu.

